

**2012KO MARTXOAREN 7AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko lauretan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko otsailaren 9ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- BERRITSU, TXELOTXE ETA EIZU ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Haurrentzako (Berritsu eta Txelotxe) eta nerabeentzako (Eizu) zerbitzuen kudeaketa kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Ezagutzera eman dira, Gazteria eta Kirola Batzordeak aipatutako zerbitzuak prozedura irekiaren bidez eta publizitatearekin kontratatzeko proposatzen duen baldintza pleguen xehetasunak, hau da: helburua (Haurrentzako (Berritsu eta Txelotxe) eta nerabeentzako (Eizu) zerbitzuen kudeaketa), lizitazio prezioa (**urteko 89.000 €** gehi BEZri dagokiona), kontratuaren iraupena (urtebetekoa beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin), kontratistaren betebeharrak eta esleipen irizpideak (1. irizpidea: Proposamen ekonomikoa: 10puntu, 2. irizpidea: Proiektua: 70 puntu, zerbitzuen helburuekin zerikusia duten zerbitzu edo programa osagarriak: 20 puntu).

Kontratazio mahaia, ondorengoek osatuko dute:

- Alkatea edo haren ordezeko zinegotzia.
- Gazteria Batzordeko udaletxeko kideak.
- Kontu-hartzailea.
- Udal idazkaria.
- Gazteria Saileko teknikari bat.

Gainera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 150,2, artikuluan xedatutakoa betez, adituen batzorde bat eratuko da matematika-formula bat aplikatuz ebaluatu ezin diren irizpideak balioesteko. Batzorde hori ondorengoek osatuko dute: gazteria saileko teknikari batek, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako gazteria arloko aholkulariak, Ordiziako Udalaren gazteriako teknikariak.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- POSTA ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.

Ondorengo proposamena ezagutzera ematen da:

“AURREKARIAK

I.- 2011ko uztailaren 12an Alkatea jaunak ondorengoa ebatzi zuen:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Gipuzkoako Kontratazio Zentralaren barruan, posta-zerbitzuko kontratazio-espeditari atxikitzea.

2.- Ebazpen honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

II.- Diputatuen Kontseiluaren 2011ko abuztuaren 2ko akordioan jasotako eskuordetzea medio, Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Foru Diputatuak 2011ko azaroaren 7ko Foru Aginduaren bitartez, SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. (IFZ.: A83052407) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez X11032 zenbakiko espeditaria “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatze esparru akordioa” burutzea ebatzi zuen.

III.- Beasaingo Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espeditari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

IV.- Behin esparru akordioa sinatu ondoren, Beasaingo Udalaren Zerbitzu batzordeko Lehendakariak eta Zerbitzuburuak 2012ko urtarrilaren 17an emandako txostenaren araber, posta zerbitzua erabiltzeko beharra dela eta, proposatu du zerbitzu honi buruzkoa, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

V.- Beasaingo Udalak izandako posta zerbitzuaren erabilera zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko 35.103 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

VI.- Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. enpresari esleitzea, sinatutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo ERABAKIA hartu da:

Lehenik. Esleitzea “Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuko esparru akordiotik” eratorritako kontratua (X11032) SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. enpresari (IFZ.: A83052407), esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da honekin batera doan Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. enpresak 2011ko irailak 22ko datarekin aurkeztutako “III.eranskina –xehetasun orria- eskaintza ekonomikoa”

Bigarren. Baimentzea eta xedatzea SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A., N.I.F.: A83052407, enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 23.105,81euroko gastua.

Hirugarren. Kontratuaren iraupena ondokoa izango da, 2012ko martxoaren 1etik kontatzen hasita.

- Bi urte, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita.
- bi luzapen, bakoitza urte-batekoa.

Laugarren. Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

4.- KONTRATAZIO ZENTRALA. Gas naturala kontratatzeko atxikitzea.

Gai honetan ezagutzera eman da, 2012ko otsailaren 29ko Zerbitzuburuaren ondorengo txostena:

“Beasaingo Udala eta Foru Aldundiaren artean Gipuzkoako Kontratazioen Zentralari atxikitzeko hitzarmena sinatuta dago.

Argi indar hornidura eta Posta zerbitzua kontratazioak aurrera eraman ondoren oraingoan Gas Naturalaren hornidura proposatzen da esleitzea.

Oraingoz 38 udalerrri eta erakunde azaldu dute bere asmoa expediente honetan parte hartzeko.

Hornitzaile bakarra izanik zerbitzua eskaintzen duena, kontratazio bolumenak bakarrik eragin dezake gaur egungo prezioen jeitxiera.

Udalaren gastua hornidura honetan 36.841,46 €-koa da.

Aipatutako kontuan izanik, Gas Naturalaren hornidura kontratazio-espeditentean parte hartzea proposatzen da.”

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako **gas naturalaren** hornikuntza kontratazeko espeditenteari atxikitzea.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko laurak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.